GRUPO INDEPENDIENTE

# LA VOZ DEL PUEBLO

TALDE INDEPENDIENTEA

MAYO 2023 MAIATZA

Memoria del trabajo realizado en Etxebarri entre 2019 y 2023
2019-2023 artean Etxebarrin egindako lanaren memoria

BOLETÍN EXTRAORDINARIO Nº 68
68. EZOHIKO BULETINA

## Etxebarri Hobetzen jarraitzen dugu

## Seguimos Mejorando Etxebarri



La Voz del Pueblo (LVP) nor den ulertzeko gakoak eta zergaitik frogatu dugun **gure herria kudeatzeko beste modu bat posible dela**:

- **EZ gara alderdi politikoa** eta horregatik gure jarraipena asanbladen eta hautagaitza bermatzeko sinadura bilketen menpe dago.
- **Gure taldea ez dago inolako sigla eta egituren menpe.** Beraz gure herritik kanpoko inongo alderdirik ez du gure herrian egin behar duguna erabakitzen. Gure buruaren jabeak gara!
- Etxebarri hobetu nahi duen edonork parte-hartu dezakeen **talde irekia gara**.
- LVP osatzen dugun kideok **herriaren alde zintzoki lan egiteko konpromezua onartzen dugu, "zerbitzeko gaude, eta ez gu zerbitzatuak izateko". Horregatik**, **Udala herritarren zerbitzura egon behar duela uste dugu, eta ez alderantziz**.
- LVPn zera uste dugu: Herritarrei konfiantza helarazi eta euren beharrizanekin asmatzerako orduan, **gardentasuna, informazioa eta parte-hartzea** gako direla.
- **Hurbiltasuna eta aditzeko gaitasuna ezin dira neurtu, baina bai gauzatu ahal dira.**
- LVP osatzen dugun kideok **Etxebarri bizi dugu**. Gure herriko bizitza sozialean inplikatuak gaude eta herria gozatzen dugu.
- **LVPk zintzotasunaren, elkartasunaren, jasangarritasunaren, justiziaren, gizarte parekide baten eta etxebarritarren interesen konpromisoaren eta defentsaren alde egiten du.**

Claves para entender quién es La Voz del Pueblo (LVP) y por qué hemos demostrado que **otra forma de gestionar nuestro pueblo es posible**.

- **NO somos un partido político** y por eso sometemos nuestra continuidad a asambleas y a recogidas de firmas para avalar la candidatura.
- **Nuestro grupo es independiente de siglas y estructuras**. Por tanto, no depende de estructuras superiores que dicen lo que tenemos que hacer en nuestro pueblo.
- **Somos un grupo abierto** en el que puede participar cualquier persona que persiga trabajar por mejorar Etxebarri.
- Las personas que conformamos LVP asumimos el compromiso de servicio desde la **honestidad y teniendo claro que "estamos para servir, no para ser servidos/as"**. Por eso, creemos que **el Ayuntamiento tiene que estar al servicio de los/as vecinos/as y no al revés**.
- LVP cree que la **transparencia, la información y la participación** son claves a la hora de transmitir confianza a los/as ciudadanos/as y de acertar en sus necesidades.
- **La cercanía y la capacidad de escucha no se pueden medir, pero sí se pueden poner en práctica.**
- Las personas que conformamos LVP **vivimos Etxebarri**. Estamos implicados/as en la vida social del municipio y disfrutamos nuestro pueblo.
- **LVP apuesta por la honestidad, la solidaridad, la sostenibilidad, la justicia, por una sociedad igualitaria, por el compromiso y la defensa de los intereses de los/as etxebarritarras.**

Etxebarri hobetzeko konpromisoa hartutako LVP taldeko lagun batzuk.



Parte del equipo de LVP que ha tomado el compromiso de mejorar Etxebarri.

## 2019-2023 legegintzaldia, COVIDaren LEGEGINTZALDIA

Legegintzaldia gogo eta ilusio handiz hasi genuen, baina 2020ko martxoan luzaroan izan dugun egoerarik larrienetako bat bizi genuen. **COVID-19ak proiektu guztiak geldiarazi zizkigun, eta "beste gauza batera" eraman gintuen: gure bizilagunak zaintzera, gu bezala egoera guztiz aparteko bat bizitzen ari bait ziren.**

Bat-batean, eta posible bada ere, zentzu handiagoa hartu zuen Udala herriaren zerbitzura zegoenaren ideia**. Bai erakundeak berak, bai LVP taldea osatzen dugunok, sorbalda arrimatzen hasi ginen, kalean bertan, beti egin izan dugun bezala, okerren pasatzen ari ziren pertsonengandik hurbil egoteko.** Egun batetik bestera alde batera utzi genituen planifikazioak eta proiektuen erritmoak familia kalteberei janaria eta sendagaiak erosteko, etxean itxitako familiei zaborra ateratzeko, kaleko urtebetetzeak ospatzeko, musukuak banatzeko...

## La legislatura 2019-2023, LA LEGISLATURA DEL COVID.

Empezamos la legislatura con muchísimas ganas e ilusión pero en marzo de 2020 vivimos una de las situaciones más graves en mucho tiempo. **El COVID19 hizo que paralizásemos todos los proyectos y nos pusiéramos "a otra cosa", a cuidar de nuestros vecinos y vecinas que como nosotros/as vivíamos una situación totalmente extraordinaria.**

De repente cobró más sentido si cabe la idea del Ayuntamiento al servicio del pueblo. **Tanto desde la propia institución como las personas que formamos el grupo LVP nos pusimos a arrimar el hombro, a pie de calle como siempre hemos hecho para estar cerca de las personas que lo estaban pasando peor.** De un día para otro dejamos de lado la planificación y el ritmo de los proyectos para hacer compras de comida y medicamentos a familias vulnerables, retirada de la basura a familias confinadas, celebración de cumpleaños callejeros, reparto de mascarillas...

## UDALA ETA LVP HERRIAREN ZERBITZURA

Oso hilabete gogorrak izan ziren (urtebete baino gehiago), non **herritarrei zerbitzua ematea lehenetsi genuen gauza guztien gainetik**, ostalaritzarako, pertsona autonomoentzako, familientzako, tokiko merkataritzarako laguntzak emanez. Karpa bat jarri genuen ikastetxean, beste bat Osasun Zentroaren kanpoaldean....

**Gure taldearen dirulaguntzari uko egin genion, eta alkatearen eta alkateordearen soldatak murriztu genituen, baita zinegotzien haborokinak ere**. Aurrezpen horren ondorioz, 4 desfibriladore erosi ahal izan dira Kukullaga ikastetxeko 3 eraikinetan eta Institutuan jartzeko. Gainera, 3D inprimagailu bat eman genuen dohaintzan lehen lerroan zeuden langileentzako babeskiak fabrikatzeko.








## EL AYUNTAMIENTO Y LVP AL SERVICIO DEL PUEBLO

Fueron unos meses (más de un año) muy intensos en los que **priorizamos el servicios a la ciudadanía sobre todas las cosas** con ayudas a la hostelería, a las personas autónomas, a las familias, al comercio local, instalamos una carpa en el colegio, otra en el exterior del Centro de Salud...

**También renunciamos a la subvención de nuestro grupo y a la reducción de los sueldos del alcalde y Tte. Alcalde, así como de las gratificaciones de los/as concejales/as**, ahorro que se ha traducido en la compra de 4 desfibriladores a ubicar en los 3 edificios del colegio Kukullaga y 1 en el Instituto. Además, donamos una impresora 3D para fabricar protectores para el personal de primera línea.

**COVID-19ak baldintzatutako legegintzaldia, zailtasun ekonomiko askorekin, non ez bakarrik gure kudeaketa-gaitasuna proban jarri den, baizik eta gure zerbitzu-gaitasuna ere bai.**

**PROGRAMAREN IA % 92 BETE DA.**

**Hala ere, udal saneatu bat uzten dugu, eta 2019an aurkeztutako programaren ia % 92a bete delarik.**




**Una legislatura condicionada por el COVID19, con muchas dificultades económicas en la que se ha puesto a prueba no solo nuestra capacidad de gestión, sino la de servicio.**

**CASI EL 92% DEL PROGRAMA CUMPLIDO.**

**Aún así, dejamos un Ayuntamiento saneado y llegando a cumplir casi un 92% del programa presentado en 2019.**

LVP-k 110 ekintza aurkeztu zituen 2019ko bere lan-proposamenan. **Horietatik 101 gauzatu egin dira edo prozesuan daude; horrek esan nahi du hauteskunde-programaren % 91,8 bete dela.**

LVP presentó en 2019 su propuesta de trabajo con 110 acciones. **De ellas se han ejecutado o están en proceso 101, lo que significa que se ha cumplido con el programa electoral en un 91,8%.**

## "KONTUAK EZ DIRENAK KONTAKIZUNAK DIRA"

**Gure taldearen kudeaketa-lanari, beste erakunde batzuekiko lankidetzari (publikoak zein pribatuak) eta irtenbideen bilaketa nekaezinari esker, Etxebarrik hazten jarraitu du 4 urte hauetan, 7,5 milioi eurotik gorako inbertsioak eginez, 0 milioi euroko zorrarekin eta gure herria hobetzen jarraitzeko 2,7 milioi eurotik gorako aurrezkiekin.**

## "LO QUE NO SON CUENTAS SON CUENTOS"

**Gracias al trabajo de gestión de nuestro equipo, a la colaboración con otras entidades (públicas y privadas) y a la búsqueda incansable de soluciones, Etxebarri ha seguido creciendo durante estos 4 años, realizando inversiones por más de 7,5 millones de €, con deuda 0 y unos ahorros de más de 2,7 millones de € para seguir mejorando nuestro pueblo.**

**DEUDA / ZORRA – 0 €**

**INVERSIONES TOTALES - INBERTSIOAK GUZTIRA - 2019-2023: 7.540.470,55 €**

**SUBVENCIONES – DIRULAGUNTZAK (2022): 2.019.152,33 €**

*2022an Udalak 2 milioi euro baino gehiago lortu ditu aurrekontuan aurreikusita ez zeuden dirulaguntzetan.*
*En 2022 más de 2 millones de € en subvenciones extraordinarias.*

**AHORRO DISPONIBLE - ERABILGARRIA AURREZKIA: 2.708.120,78 €**

Udala antolatuta dagoen 3 batzordeetan banatuta egindako ekimenen laburpena aurkezten da ondoren:

Grado de cumplimiento
Betetze maila
**92,11%**

## HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, MUGIKORTASUNA, HIRITARREN SEGURTASUNA, UDALA

Azkenik, "Mirador" Proiektua deiturikoak aurrera egin du, eta horrek babestutako etxebizitza asko eraikitzea ekarriko du. Epe laburrean BABES OFIZIALEKO 60 eta TASATUTAKO 35 ETXEBIZITZA zozketatzea aurreikusten da. Gainera, Udalak lurzati propio bat izango du, 6 udal-etxebizitza eta babes ofizialeko 8.

Se presenta a continuación un resumen de las actuaciones según las 3 comisiones en las que está dividido el Ayuntamiento:

## URBANISMO, VIVIENDA, OBRAS Y SERVICIOS, MOVILIDAD, SEGURIDAD CIUDADANA, AYUNTAMIENTO

Por fin se ha desatascado el llamado Proyecto Mirador que traerá consigo una importante construcción de vivienda protegida. A corto plazo se prevé el sorteo de **60 VPOS Y 35 VIVIENDAS TASADAS**. Además, el Ayuntamiento contará con una parcela propia, 6 viviendas municipales y 8 viviendas de VPO.




**Urbanizazio-obra garrantzitsuenak / Urbanizaciones más importantes**













AV. SAN ANTONIO ETORBIDEA 1-13




EGETIAGA URIBARRI

**Komun publikoak, Galizia kaleko 1-3-5 zenbakien plazatxoaren birmoldatzeak eta oinezkoentzako bidea eta San Esteban elizarako sarbidearen** berrantolatzeek osatzen dituzte hirigintza-jarduketa nabarmenenak.

**Baños públicos, la remodelación de la plazuela de la calle Galicia 1-3-5 y la reorganización del camino peatonal y acceso a la Iglesia San Esteban** completan las actuaciones urbanísticas más destacadas.








## MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Legegintzaldiko proiektu ausartetako bat **BIZIKLETA-ARDATZ NAGUSIA BULTZATZEA** izan da. San Estebanen, Kukullagan eta San Antonion ezartzeak zentzua izango du Arratiako tranbiaren tunel zaharraren bidez Bilborekiko konexioa hobetzen denean. Tunel horrek hiriburuarekin modu eraginkorrean lotuko bait gaitu Boluetako zubiaren bidez.



## MOVILIDAD SOSTENIBLE

Uno de los proyectos valientes de la legislatura ha sido el **IMPULSO AL EJE TRONCAL CICLABLE**. La implantación en San Esteban, Kukullaga y San Antonio cobrará sentido con la mejora de la conexión con Bilbao a través del antiguo túnel del Tranvía de Arratia que conectará con la capital de forma eficiente a través del puente de Bolueta.

## PARKEAK

Legegintzaldi honetako esku-hartzerik garrantzitsuena **ZINTURURIKO BIRMOLDAKETA INTEGRALA** izan da: paseatzeko guneak egokitu dira, orain estalkia duen jolas-eremua erabat berritu izan da eta ur-zorrotak dituen eremu berritzaile bat instalatu da.

Gainera, **San Antonio etorbideko 8. eta 10. zenbakien atzealdekoak berritu egin dira** eta Kukullaga parkeko estalkipean daudenen erreforma orokorra lehiaketara atera da.

Txakurrentzako aisiarako guneak zabaltzen jarraitzen dugu, eta dagoeneko **Etxebarriko bigarren "txakurgunea" jarri da**, txakurrentzat bakarrik den gunea eta maskoten elkarbizitza eta integrazioa hobetzen laguntzen duena. Nabarmentzekoa da, halaber, **Etxebarriko Katu**ei ematen zaien babesa, bai eta katu-koloniak kontrolatzeko bere programari ere; Beste udalerri batzuentzat erreferentea den proiektua eta animali horiek behar bezala mantentzen eta zaintzen lagundu duena.





## PARQUES

La intervención más importante esta legislatura ha sido la **REMODELACIÓN INTEGRAL DE ZINTURURI**: se han adecuado las zonas de paseo, se ha renovado completamente la zona de juegos infantiles que ahora cuentan con cubierta y se ha instalado una novedosa zona de chorros de agua.

Además, se han **reformado los de la trasera de los números 8 y 10 de la Av. San Antonio** y se ha sacado a concurso la reforma general de los cubiertos del parque Kukullaga.

Seguimos ampliando los espacios de esparcimiento para perros y ya **se ha instalado el segundo "txakurgune" de Etxebarri**, un espacio exclusivo para perros que ayuda a mejorar la convivencia e integración de las mascotas. Cabe señalar también el apoyo a **Etxebarriko Katuak** y su programa de control de colonias de gatos, un proyecto referente para otros municipios que ha ayudado a mantener y cuidar estos animales de manera adecuada.



## HIRITAR SEGURTASUNA

**Etxebarri herri segurua da: Ertzaintzaren datuen arabera, udalerriko delitu-tasa gure inguruko txikiena da, batez beste 26,66 delitu 1.000 biztanlekoa delarik Bizkaiarena 65,62 den bitartean (2022ko datuak).**

Legegintzaldi honetan, Udaltzaingoaren plantilla finkatzeko eta handitzeko oinarriak jarri dira, eta komisaldegi berri bat gaitzeko prozesua hasi da.




## SEGURIDAD CIUDADANA

**Etxebarri es un pueblo seguro: según datos de la Ertzaintza la tasa de delitos del municipio es la menor de nuestra demarcación con una media de 26,66 por cada 1.000 habitantes mientras que la media en Bizkaia es de 65,62 (datos de 2022).**

En esta legislatura se han puesto las bases para consolidar y ampliar la plantilla de la Policía Local y ya se ha iniciado el proceso para habilitar una **nueva comisaría**.

**Kamerak. Udalerriko sarrera/irteeretan kamerak jartzea "gaizkileentzako" disuasio-elementu bat bakarrik izateaz gain, delitu ugari konpontzeko ere balio izan du, hala nola lapurretak, altzarien hausturak edo bandalismoa.**

Gainera, **DESFIBRILADOREEN** kopurua osatu egin da, 10 izan arte iritsi delarik, patruilak udal-ibilgailuan daramana kontuan hartuta.

**Cámaras.** La instalación de cámaras en las entradas/salidas del municipio no solo ha sido un elemento disuasorio para "los/as malos/as" sino que ha servido para resolver numerosos delitos como robos, roturas de mobiliario o vandalismo.

Además, se ha completado el número de **DESFIBRILADORES** llegándose hasta los 10 si contamos con el que lleva la patrulla en el vehículo municipal.








## ARLO SOZIOKULTURALA: KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA, EUSKARA, GAZTERIA, HAURRAK...

Grado de cumplimiento
Betetze maila
**94,74%**

COVID-19ak udalerriko kultura- eta kirol-agendaren zati handi bat birformulatzera behartu zuen. Argi dauden arrazoiengatik, jarduera batzuk ezin izan ziren egin, baina gure ahaleginari esker, horietako asko birformulatu ahal izan genituen, eta bizilagunen beharrei erantzuna eman ahal izan zitzaion.

**Aipamen berezia 2020ko udalekuei, lehentasuna eman baitzitzaion kontziliazioari eta haur eta gazteak kalera irten eta jolas- eta hezkuntza-jarduerak egin ahal izateari.**

**Ezin ditugu ahaztu Olentzeroren deiak, eta are gutxiago ere Errege Magoekin batera egon ziren eta gure herriko haur bakoitzari opari bana eraman zioten iratxo berezien lana.**

## ÁREA SOCIOCULTURAL: CULTURA, DEPORTES, EDUCACIÓN, EUSKERA, JUVENTUD, INFANCIA...

El COVID19 obligó a reformular gran parte de la agenda cultural y deportiva del municipio. Por causas obvias algunas actividades no se pudieron realizar pero gracias a nuestro esfuerzo pudimos reformular muchas de ellas y dar respuesta a las necesidades de los/as vecinos/as.

**Especial mención a las Colonias de Verano de 2020 que priorizaron la conciliación y la prioridad de niños/as y jóvenes a salir a la calle y realizar actividades lúdicas y educativas.**

**No podemos olvidar las llamadas del Olentzero y mucho menos el trabajo de los/as especiales duendes que acompañaron a los Reyes Magos y llevaron un regalo a cada niño y a cada niña de nuestro municipio.**

**Hori LVPn Herri bizitzat ulertzen dugunaren adibide bat baino ez da, non bizilagunek parte hartzeko, kalera irteteko eta herriaz gozatzeko aukerak izaten jarraitzen duten.**

Elkarte-mugimenduaren eta jai-batzordeen aldeko apustua horren adibide garbia da. Hasiera zaila izan zen COVID-19arekin, baina gaur egun esan dezakegu erritmoa berreskuratu dela, eta elkarteek, klubek eta jai-batzordeek proposatutako jarduerak normaltasunera ez ezik, indar handiagoz ere itzuli direla.

**Esto es solo un ejemplo de lo que en LVP entendemos por un municipio vivo en el que los/as vecinos/as siguen teniendo oportunidades de participar, salir a la calle y disfrutar de su pueblo.**

La apuesta por el movimiento asociativo y las comisiones de fiestas es buen ejemplo de ello. Fue un inicio difícil con el COVID19 pero a día de hoy podemos decir que se ha recuperado el ritmo y que las actividades propuestas por asociaciones, clubes y comisiones de fiestas no solo han vuelto a la normalidad sino que incluso con más fuerza.






**Betetzat ematen dugu, halaber, gure taldeak abian jarritako herritarren partaidetza-prozesuan boto gehien jaso zuen konpromisoa: ERABILERA OROKORREKO KANPOKO IGERILEKUA eraikitzea. Abenduan amaitu ziren lanak eta udako kanpainan erabili ahal izango da.**

Egokitu diren erabilera libreko kirol-instalazio batzuk nabarmendu nahi ditugu ere bai: kalistenia-zirkuitua, kirol anitzeko pista eta Pump-Truck-a.

**Damos por cumplido también el compromiso más votado en el proceso de participación ciudadana puesto en marcha por nuestro grupo: la construcción de una PISCINA EXTERIOR DE USO GENERAL cuyas obras finalizaron en diciembre y que se podrá utilizar en la campaña de verano.**

También destacamos algunas instalaciones deportivas de uso libre que se han habilitado: circuito de calistenia, pista polideportiva y Pump-Truck.









Azkenean, INSTITUTU BERRIAREN obrak hasi dira. Gaur egungo eraikinak dituen leku falta eta irisgarritasun hobekuntzen gabeziaren ondorioz asko desiratutako eraikina.

Eraikin berri honek 20 gela izango ditu DBHrako eta beste 6 batxilergorako. Horrez gain, laborategiak, tailerrak, banatze-gelak, liburutegia, mintegiak, jantokia, zuzendaritza-taldearentzako eta guraso-elkartearentzako guneak eta abar hartzeko behar diren espazioak izango ditu ere bai.

Por fin han arrancado las obras del **NUEVO INSTITUTO**, un edificio más que deseado ante la falta de espacio y las mejoras de accesibilidad de las que el edificio actual carece.

El nuevo edificio contará de 20 aulas para ESO y otras 6 para Bachillerato, además de contar los espacios necesarios para albergar laboratorios, talleres, aulas de desdoble, biblioteca, seminarios, comedor, espacios para el equipo directivo y el AMPA, etc.





Horretaz gain, gimnasio berri bat altxatuko da eraikinaren ondoan, eta pasabide baten bidez lotuko da gaur egun dagoen pista estaliarekin, instalazioen arteko igarobide guztiak barrualdetik izan daitezen.

Era berean, Barandiaran ikastetxeko jolastokian **HAURRENTZAKO JOLASETARAKO ESTALKIA** instalatzen amaitu da, eta, horrela, haurrak busti gabe ikastetxeko 3 eraikinak lotzea lortu da.

Gure taldeak euskararen alde duen konpromisoa eta apustua agerian geratzen dira Eustatek 2021ean argitaratu zituen datuetan. Datu horien arabera, 2016-2021 bosturtekoan euskaldunen kopurua % 2,5 baino gehiago hazi zen. Horren arabera**, 2 urtetik gorako biztanleen % 37,91k euskaraz hitz egiten du eta ulertzen du, eta ia-euskaldunak batuta, etxebarritarren % 61,79k euskara ulertu eta elkarrizketa bat mantendu lezake.**

Beste datu garrantzitsu bat udal euskaltegian urtero matrikulatutako 150 pertsona baino gehiago dira. Euskaltegiak urtez urte etxebarritar guztientzako eskaintza eta abantailak handitzearen aldeko apustua egiten jarraitu bait du: langabeentzako ikastaro trinkoa, etorkinentzako ikastaroak, Batxilergoko ikasleentzako EGA/C1 lortzeko ikastaroak, aitite eta amamentzako onura berriak, familia ugariak, guraso bakarreko familiak...

Se construirá además un nuevo gimnasio anexo al edificio, y se unirá mediante una pasarela con la pista cubierta existente en la actualidad, de manera que todos los tránsitos entre las instalaciones serán por el interior.

También ha finalizado la instalación de la **CUBIERTA DE JUEGOS INFANTILES** en el patio del Colegio Barandiaran con lo que se ha conseguido conectar los 3 edificios del centro sin que los/as niños/as se mojen.

EUSKARALDIA

El compromiso y la apuesta de nuestro grupo por el Euskera quedan de manifiesto en los datos que el Eustat publicó en 2021 y que daban como resultado un incremento de más de un 2,5% de Euskaldunes en el quinquenio 2016-2021. Según esto, **un 37,91% de la población mayor de 2 años habla y entiende Euskera, que sumada a los/as cuasi-euskaldunes, nos lleva a que el 61,79% de los/as Etxebarritarras entiende y podría mantener una conversación en euskera**.

Otro dato relevante son las más de 150 personas matriculadas anualmente en el Euskaltegi municipal que año tras año ha seguido apostando por incrementar la oferta y ventajas para todos y todas las etxebarritarras: cursillo intensivo para personas desempleadas, cursillos para inmigrantes, cursos orientados a obtención del EGA/C1 para alumnos/as de Bachiller, nuevos beneficios para aitites y amamas, familias numerosas, monoparentales...

## GIZARTE-ONGIZATEA, ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA, MERKATARITZA, ADINEKOAK, GARAPENERAKO LANKIDETZA, GENERO BERDINTASUNA

Grado de cumplimiento
Betetze maila
**88,24%**

**Gure herriko langabezia-tasa % 7,7raino jaitsi da martxoan. Aparteko albistea da, antzeko tasak aurkitzeko 2007ra arte atzera egin behar baita. Gainera, Etxebarri da inguruko udalerrietatik tasarik baxuena duen herria:**

- **45 urtetik gorako 24 pertsona kontratatu dira azken urtean** enplegu-prestakuntzako bi programatarako (pintura espazio publikoan eta adinekoei laguntzea).
- **Gainera, 29 pertsona kontratatuak izan dira legegintzaldian** urteko enplegu-planen bidez.

| Municipio<br>Udalerria | Tasa de paro – marzo<br>Langabezia-tasa martxoa 2023 |
|---|---|
| **Etxebarri** | **7,70%** |
| Galdakao | 8,80% |
| Arrigorriaga | 10,40% |
| Ugao-Miravalles | 10,50% |
| Bilbao | 12,90% |
| Basauri | 13,10% |

Iturria / Fuente: www.lanbide.eus

Nolanahi ere, COVID19ak eragindako krisiak hainbat kolektibori eragin zien, eta horregatik Udalaren aurrekontu osoaren % 10ª suposatzen duen Gizarte Zerbitzuen Arloa zaintzen jarraitu da.

**2020an 500.000 € baino gehiago Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, familiei eta herritar guztiak laguntzeko.**

Babesgabetasun-egoeran dauden familiei aldi baterako lagatako etxebizitzen kopurua 5era handitu da, laneratzeko laguntzarekin.

**Elikadura-soberakinak berreskuratzeko proiektua abian jarri da, Etxebarriko Institutuarekin lankidetzan. Proiektu horrek Kultur Etxean jarritako makinan doako janari-errazioak eskuratzea ahalbidetzen du.**

## BIENESTAR SOCIAL, EMPLEO, FORMACIÓN, COMERCIO, PERSONAS MAYORES, COOPERACIÓN, IGUALDAD DE GÉNERO

**La tasa de paro de nuestro pueblo ha llegado a bajar hasta el 7,7 % en el mes de marzo, una noticia extraordinaria ya que para encontrar tasas parecidas hay que retroceder hasta el año 2007. Además, Etxebarri es el pueblo con la tasa más baja de los municipios de alrededor:**

- **24 Personas mayores de 45 años han sido contratadas en el último año** para dos programas de empleo-formación (pintura en el espacio público y acompañamiento a personas mayores).
- **Además, 29 personas contratadas a lo largo de la legislatura** a través de los planes de empleo anuales.

En todo caso, la crisis provocada por el COVID19 afectó a varios colectivos y por eso se ha seguido “mimando” el Área de Servicios Sociales que supone el 10% del presupuesto total del Ayuntamiento.

**Más de 500.000 € en Ayudas de Emergencia Social en 2020 para ayudar a familias y población en general.**

Se ha ampliado a 5 el número de viviendas cedidas temporalmente a familias en situación de desprotección con acompañamiento para la inserción laboral.

**Se ha puesto en marcha el proyecto de recuperación de excedentes alimentarios en colaboración con el Instituto de Etxebarri y que facilita el acceso a raciones de comida gratuitas en la máquina colocada en la Casa de Cultura.**






## Adinekoentzako arreta, gure lehentasuna.

**Mimatua izatea merezi duen kolektibo bat badago, hori adinekoena da. Zerbitzuetan eta arretan azken urteotan izandako aurrerapena oso nabarmena da.**

Azpimarratzekoak dira martxan zeuden zerbitzu batzuk, hala nola Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, adinekoentzako doako jarduera fisikoa eta Udalak Aldundiari doan lagatako lokaletan dagoen Eguneko Zentroa, "Amamen eta Aititeen" kalean.

Zerbitzu horiei gehitu behar zaizkie **JUBILATUEN BI ETXEAK HOBETZEKO** inbertsioak, **ADINEKOEI LAGUNTZEKO PROIEKTU** pilotua eta Euskadin erreferentea den **ADINEKOENTZAKO EGOITZA BAT** eraikitzeko inbertsioak.

## La atención a las personas mayores, nuestra prioridad.

**Si hay un colectivo que merece ser mimado ese es el de las personas mayores. El avance en servicios y atención en los últimos años es más que notable.**

Destacamos algunos servicios que estaban en marcha como el Servicio de Ayuda a Domicilio, la actividad física gratuita para mayores y el Centro de Día en los locales cedidos gratuitamente por el Ayuntamiento a la Diputación en la calle "Amamen eta Aititeen kalea".

A esos servicios hay que sumar las inversiones en la **MEJORA DE LOS DOS HOGARES DE JUBILADOS/AS**, el proyecto piloto de **ACOMPAÑAMIENTO A PERSONAS MAYORES** y la construcción de una **RESIDENCIA PARA PERSONAS MAYORES** referente a nivel de Euskadi.







Bestalde, Aldundiak bere erabaki bakarrez Bizipoz proiektu arrakastatsua itxi zuen, eta haren ordez "Etxetic" programa jarri zuen. Programa horrek teknologien erabileraren aldeko apustua egiten du, baina nabarmen murrizten du aurrez aurreko lana. Gure adinekoek behar dutena, hain zuzen ere, elkarguneak, parte hartzeko guneak, paseatzea, ikastea, partekatzea eta abar dela uste dugu. Hori guztia **PARTEKATU zahartze aktiboko programa berriak** eskeintzen du eta bere alde apustu egin dugu.

**Gure herriko merkatari eta ostalariei laguntzea izan da** beste apustu garrantzitsuetako bat. COVID garaian gure kezka argi ikusi zen, profesional horiei larrialdiko laguntzak ematen zizkien lehen udala izan bait ginen.

Baina ez hori bakarrik, **MSPBren** (Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia) onarpenak hainbat berrikuntza ekarri ditu: udalerriko merkatari eta ostalarientzat irekita dagoen **MERKABULEGO MERKATARITZA BULEGO** berria oso bultzada garrantzitsua izango da sektoarentzat, dagoeneko **ALOKAIRURAKO, EGOKITZE LANETARAKO ETA LOKALAK EGUNERATZEKO LAGUNTZAK** eskaintzen bait ditu.

Etxebarri Bonuaren handitzea, informazio komertziala duten MUPIak martxan jartzea eta OHZ izoztea izan dira gure merkatari eta ostalariei laguntzeko hartutako diren beste neurri batzuk.



ETXEBARRI NOTICIAS

Etxebarri pone en marcha un novedoso programa de ayudas para revitalizar el comercio

Por otro lado, la Diputación cerró de manera unilateral el exitoso proyecto Bizipoz y lo sustituyó por el programa Etxetic que apuesta por el uso de las tecnologías pero reduce de manera notoria el trabajo presencial. Creemos que lo que necesitan nuestros/as mayores es precisamente puntos de encuentro, espacios de participación, pasear, aprender, compartir, enseñar... todo eso lo tiene el **nuevo programa de envejecimiento activo llamado PARTEKATU** por el que hemos apostado.

Otra apuesta importante ha sido el **apoyo a los/as comerciantes y hosteleros/as de nuestro pueblo**. En la era COVID se puso de manifiesto nuestra preocupación siendo el primer ayuntamiento en otorgar ayudas de emergencia a estos/as profesionales.

Pero no solo eso, la aprobación del **PERCO** (Plan Especial de Revitalización Comercial) ha traído consigo varias novedades: la nueva **OFICINA COMERCIAL MERKABULEGO** abierta a comerciantes y hosteleros/as del municipio supondrá un impulso muy importante para el sector que ya cuenta con **AYUDAS PARA EL ALQUILER, PARA LAS OBRAS DE ADECUACIÓN Y PARA LA ACTUALIZACIÓN DE LOS LOCALES**.

La ampliación del Bono Etxebarri, la puesta en marcha de MUPIs con información comercial y la congelación del IBI han sido otras medidas de apoyo a nuestros/as comerciantes y hosteleros/as.




merkabulego!

oficina de dinamización comercial de etxebarri

**“Atari guztietara era irisgarrian iristea”.**

Hori zen legegintzaldiaren helburuetako bat, eta Lezama Legizamon kaleko igogailu berriaren obra martxan egonda helburu hori betetzat emango genuke.

**“Llegar a todos los portales de manera accesible”.**

Ese era uno de los objetivos de la legislatura y con la obra en marcha del nuevo ascensor de Lezama Legizamon daríamos por cumplido este objetivo.



**NAVARRA KALEA**



**SANTA ANA**



**LEZAMA LEGIZAMON**

Hona hemen gure taldeak legegintzaldi honetan aurkeztu dituen aurrekontuen bozketen emaitzak:

Estos son los resultados de las votaciones a los presupuestos presentados por nuestro grupo a lo largo de esta legislatura:

| Partido Alderdia | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| | Voto · Botoa | Voto · Botoa | Voto · Botoa | Voto · Botoa |
| EH Bildu | Abstención / Abstenzioa | A favor / Aldeakoa | Abstención / Abstenzioa | Abstención / Abstenzioa |
| EAJ-PNV | En contra / Kontran | A favor / Aldeakoa | A favor / Aldeakoa | A favor / Aldeakoa |
| PSE-PSOE | A favor / Aldeakoa | A favor / Aldeakoa | A favor / Aldeakoa | A favor / Aldeakoa |

Bozketa horiek **GURE PROPOSAMENAK** Etxebarriren beharrekin bat datozela erakusten du, eta inork ezin duela aurka bozkatu, estrategiagatik ez bada behintzat.

**Logika nagusitu egiten da, eta orain alderdi batzuk GURDIRA IGO eta GURE IDEIAK bere egiten dituzte.**

Liburuxka honetan ikusi dituzun proiektu guztiak **LA VOZ DEL PUEBLOren HAUTESKUNDE PROGRAMAN JASOTAKO IDEIAK** dira. Programa hori modu parte-hartzailean egin zen, eta postontzi guztietan banatu zen 2019an, **ETXEBARRIN ETA ETXEBARRITIK** pentsatuz **BAKARRIK**.

Estas votaciones demuestran que NUESTRAS PROPUESTAS encajan con las necesidades de Etxebarri y que nadie puede votar en contra, a no ser que sea por estrategia.

**La lógica se impone y ahora algunos partidos SE SUBEN AL CARRO y hacen suyas NUESTRAS IDEAS.**

**TODOS** los proyectos que has visto en este folleto son **IDEAS DE LA VOZ DEL PUEBLO RECOGIDAS EN EL PROGRAMA ELECTORAL.** Programa que se elaboró de manera participativa y que se entregó en todos los buzones en 2019 pensando **SOLO EN Y DESDE** Etxebarri.

# Eskerrik asko Etxebarri !

**Legealdi zaila baina guztion artean errazagoa egin duzue.**

**Legislatura complicada que entre todos y todas habéis hecho más fácil.**

665 708 727 · www.lvpetxebarri.org · lvpetxebarri · La Voz del Pueblo (LVP) Etxebarri